

# Funtsezko Elkarteak

Gure enpresa aurrera eramateko zenbait bazkide behar ditugu.

Hasteko, **eskoletara eramateko psikologoak** behar ditugu, beraz **unibertsitatekin harremanetan** ipiniko gara.

Karrera amaieran dauden psikologoek plantilla bat eskatuko diegu euskal unibertsitate publiko eta pribatuei. Bizkaiko institutuei gure zerbitzuak eskaintzeko kontratatuko ditugun psikologoak erkidegoko unibertsitate garrantzitsuenetakoak izango dira, hau da, **Deustukoa** eta **EHUkoa**. Ikasleek gradu hauetan lizentziatura eduki beharko dute: psikologia, pedagogia... Era berean, "Psycho Flora"-k hainbat elkarrizketa egingo dizkie lehen aipatutako ikastetxeetako ikasleei, eta, horrela, zer profil mota kontratatzen ari garen ikusiko dugu; hau da, titulu egokiak erakustea beharrezkoa izateaz gain, elkarrizketa pertsonal bat ere egingo zaie, beren bizitza pertsonalari, gustuei... buruz.

Bestalde, beharrezkoa ikusten dugu euskal unibertsitate batekin baino gehiagorekin hitzarmenak izatea, enpresarako ahalik eta langile gehien izateko. Horretaz gain, gizartearentzat ere kezagarria den lana betetzen ariko ginateke: gazteen langabezia; hau da, lizentziatu berri diren gazteentzat lanak sortzen ariko ginateke, lan-munduan eskatzen den esperientzia izan dezaten.

Unibertsitateei gure lan-enplegua eskaini ahal izateko, harremanetan jarriko gara Deustuko eta EHUko unibertsitateetako enpleguko edo lan-enpleguko sailekin. Horrela, eskaintzen ditugun lan-aukerak zintzilikatu ahal izango ditugu.

Psikologo hauek kontratatzeko, loreen negozio txiki bat edukiko dugu. Horretarako enpresako kide batek Kantabrian lurra dituen, hauek erabiliko ditugu gure haziak landatzeko. Ondoren, hazten direnean interneten bidez gure bezeroei salduko dizkiegu.

Horregatik, alde batetik haziak saltzen dizkigun enpresa batekin hitz egin behar dugu haiekin elkarrekin lan egin ahal izateko.

Alde batetik, Gipuzkoako **Aleka** enpresarekin harremanetan jarriko gara. Aleka haziak saltzen dituen enpresa da, edozein motatako landareenak direnak. Beraz, gure bazkideak badira, haien produktua salduko digute eta guk aurrean esandako lurretan landatuko ditugu ondoren gure bezeroei emateko.

Bestalde, aurrean esan dugunez, gure lurra erabiliko ditugu landatzeko, beraz lurra zainduko dituzten lorezainak behar izango ditugu. Horretarako lorezaintzako LHa ematen duten eskolekin harremanetan jarriko gara. Euskal Herri LH mota hau duten eskolak zeintzuk diren jakiteko Eusko Jaularitzako Heziketa Sailak duen LH-en zerrenda ikusi dugu, zehazki "Nekazaritza" deitutako atalean. Atal honen barruan lorezaintza duten eskolak agertzen dira, hau da, Fraisoro Eskola LHII, Gipuzkoan, Arkaute Nekazaritza LHII, Araban, eta Derio Nekazaritza LHII, Bizkaian. Beraz, haiekin komunikatuko gara geure bazkideak izateko eta lorezainekin komunikatu ahal izateko.

Azkenik, Espainia osoari landareak online saltzen dituen enpresa garenez, geure bezeroei produktuak eramateko produktuak garraiatzen dituen enpresa behar dugu, hots, SEUR. Euskal Herriko bezeroei guk eramango diegu, baina beste probintzietako eskariak SEUR enpresak eramango ditu, gure bazkidea izango delako.

**Bazkideen taula haien garrantziaren arabera sailkatutak, garrantzitsuenetik garrantzi gutxiago duena arte:**

Bazkidea	Produktua/Zerbitzua	Garrantziaren zergatia
<b>Deusto Unibertsitatea eta EHU</b>	Psikologoak	Gure ideia funtsa da, psikologorik gabe ideia aurrera ezin delako eraman.
<b>Aleka</b>	Loreak (cosmos eta ilena)	Psikologoak ordaintzeko beharrezkoak dira.
<b>Aliexpress</b>	Plastikozko loreontziak	Loreak bidaltzeko beharrezkoak dira, nahiz eta beste moduak bilatu ahal ditugu.
<b>Fraisoro Eskola LHII, Arkaute Nekazaritza LHII eta Derio Nekazaritza LHII</b>	Lorezainak	Gure loreak zaintzeko jende espezializatua behar dugu, baina beti guk kurtso berezi bat egiteko aukera dugu.
<b>SEUR</b>	Produktuak garraiatzea	Landareak azkarrago bidaltzeko beharrezkoa da.

**Aleka:** [Aleka-katalogoa-2022.pdf](#)

**Aliexpress:**

[https://es.aliexpress.com/item/1005002319241186.html?spm=a2g0o.productlist.main.19.11db2259XKAh3l&algo\\_pvid=aa79d3c3-dd75-4fe5-a953-4d0c5e797202&aem\\_p4p\\_detail=2023111002301613563583085141120003272648&algo\\_exp\\_id=aa79d3c3-dd75-4fe5-a953-4d0c5e797202-9&pdp\\_npi=4%40dis%21EUR%213.94%212.8%21%21%214.11%21%21%40211b61ae16996122166324277e8ef3%2112000020065215288%21sea%21ES%210%21AB&curPageLogUid=oqQvXfse2RDB&search\\_p4p\\_id=2023111002301613563583085141120003272648\\_10](https://es.aliexpress.com/item/1005002319241186.html?spm=a2g0o.productlist.main.19.11db2259XKAh3l&algo_pvid=aa79d3c3-dd75-4fe5-a953-4d0c5e797202&aem_p4p_detail=2023111002301613563583085141120003272648&algo_exp_id=aa79d3c3-dd75-4fe5-a953-4d0c5e797202-9&pdp_npi=4%40dis%21EUR%213.94%212.8%21%21%214.11%21%21%40211b61ae16996122166324277e8ef3%2112000020065215288%21sea%21ES%210%21AB&curPageLogUid=oqQvXfse2RDB&search_p4p_id=2023111002301613563583085141120003272648_10)

**Lorezaintzako LHa ematen duten eskolak:** [Curso 2023/2024 ikasturtea JARDUERA FISIKOAK ETA KIROLAK / ACTIVIDADES FÍSICAS Y DEPORTIVAS](#)

- **Derio Nekazaritza Eskola:** [CIFP Escuela Agraria Derio – Bizkaiko nekazaritza eskola](#)
- **Arkaute Eskola:** [Arkaute](#)
- **Fraisoro Eskola:** [Fraisoro Eskola](#)

**SEUR:** [SEUR](#)